



uk

85. zenbakia / 2005 uztailak 17



50. "PAELLA" SARIKETA



2005ko VZTAILAREN 24an



1956 - 2005
50. urteurrena



Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Getxoko jazzaldia. Asier Mentxaka.
- 6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Getxoko Antimilitaristak.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Galeako gotorlekua.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 9. ERRETRATUA. Iñaki Gonzalez. A. M.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopelana 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Euskal Selekzioen Eguna. Jose Mari Martinez *Bubu*.
- 26. ERREPORTAJEA. TAOa Sopelan. Unai Brea.
- 28. ARGAZKIA. Antzarak Portu Zaharrean. David Herranz.
- 30. BERBETAN. Pello Sarasola. U. B.
- 34. FOTOGRAFIA. Getxoko paella eguna.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma.
- 43. MUSIKA. Erromoko ska-reggae jaialdia. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Patxi Zubizarretaren azkena. Liburuaren erreseinak.
- 45. KIROLA. Iker Sanchez korrikolaria.

EUSKARAZ

- 46. ELKARRIZKETA. Jose Heredia. Unai Brea.
- 47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan? Esaterako, Algortako Bema Etxean.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Paella Eguna, 1960. Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Naroa Agirre. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Paella eguna Aixerrota (1972-7-23)



30 Pello Sarasola

Berbetan

Antena 3 pizten dugunean pantailan zer agertuko den erabakitzen du berak. Hamar urtez ETBko programazio arduraduna izan da.



24 Albuma



34 Paella Eguna



46 Jose Heredia



54 Naroa Agirre



18 Sopelako jaiak

KALA kantarepe BAR

SAN INAZIO
ZORIONTSUAK PASA!!!

EUSKAL HERRIA, 22
ALGORTA

Adituak gara pintxoetan!!

Torrene z/g ALGORTA
T.: 94 460 50 42

SALSIDU TABERNA

Jaietan, giro jatorra!

San Inazio zoriontsuak pasa!

Salsidu 9, ALGORTA

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Arriaga

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Bitor Egurota, Xabier Bilbao, Oskar Fariñáñez, Unai Amezaga, Esti Ezkerra, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osoan edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du**
Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du**

**Leioako Udala**
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**
Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Bizkaiko Foru Aldundia**
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**EROSKI FUNDAZIOA**
Aldizkari honek Eroski Jaurlanaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

**uk** aldizkaria etxean jaso nahi baduzu
94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

gugeu

Bagoaz oporretan

Ondo irakurri duzu, bai. Betiko legez abuztuan oporrak hartuko ditugu aldizkari honetako behargin nekatuok, irailan indarberriturik UK berri bat zuenganatzeko. Urtero hogei UK plazaratzen ditugu eta aurre dagoeneko hamabik ikusi dute argia. Gainontzeok jakina, irailetik aurrera jasoko dituzu.

Ordura arte esku artean darabilzun azken UK mamitsu honekin uztziko zaitugu. Zalantza barik, ale honetan protagonista nagusia Paella Eguna eta bere 50. urteurrena dira. Itxas Argiako gure lagun lan ordainezinak egiten du posible getxoetarrok bihotzean daramagun egun handi hau. Euren gure esker ona adierazi behar diegu, eta bihotz-bihotzez zoriondu.

Baina ale honetan beste eduki asko ere aurkituko dituzue. Esaterako, duela gutxi arte ETBko programazio arduraduna izan den Pello Sarasolari egin diogun elkarrizketa. *Vaya semanita* saioko lantaldea bezala, Madrilerako bidea hartu du Sarasolak eta Antena 3eko programazio arduraduna da gaur egun. Bestalde, Euskal Selektzioen egunean ere egon ginen, Sopelako jaietan, Getxoko jazzaldian... eta beste leku askotan eta hainbat lagunekin ere UK ahalik eta osoen egiteko.

Irailaren hasiera arte, beraz, eta tartean, esaera zaharrak dioen moduan: "ondo ibili, gitxi gasta eta bueltak amari!"⁴

UK-ko lantaldea

gutunak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat.

Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero irakurri > **berria**



ALGORTA, 2005eko UZTAILAREN 14

Mikroa jan / Aurten ere egun batzuetan Getxo jazzaren hiriburua izan da; izan ere, 10.000 jazz zale inguru bildu dira herrian egin diren kontzertuetara. Gu jatorri mozanbikearra duen Maria Joao abeslari portugaldarrak eskaini zuenera joan ginen. Han kantari honek bere ahotsa musika estilo ugarietara egokitze duen ahalmenagaz gozatzeko aukera paregabea eduki genuen. Literalki mikroa jan egin zuela esan genezake. m / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Leihatila

> Maddi Albizu

Herri bizi bat

Uztailaren 16an getxoztarrok Euskal Herriko bazter desberdinetatik etorritako graffiti egileen trebeziaz gozatzeko aukera paregabea izan genuen. Getxoko Udaleko Gazteria eta Euskara Zerbitzuen eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren arteko lankidetzaren emaitza izan den ekimen txalogarri honi esker, gazteen sormen gaitasuna mugagabea dela egiaztatu ahal izan dugu. Ez dakit hormak margoztea eta hormetan kartelak jartzea guztiz debekatua duen Udal batek honelako ekimen bat aurrera eramateko baimena eman ez ezik era aktiboan parte hartzea ere gauzak aldatzen ari diren seinaleztat hartu beharko ote genukeen. Baietz espero dezagun. Kalea guztiona da, eta kalea bizirik dago. Herri batek berezko nortasuna izan behar du, herritarrek emaniko nortasuna, alegia. Denok dugu eskubidea baruan duguna adierazteko, eta Udalaren betebeharra da horretan laguntzea. 4

IRITZIA

Getxo Antimilitaristako (GA) kideek honako gutuna helarazi digute Euskal Herriko arma ekoizleatariko baten aurkako ekintza egin ondoren. Eta bide batez taldearen agurra ere bada artikulua.

Baina ez al da soldaduska desagertu?

Hori da Espainiako estatuko polizia guztiek inoiz galdetu digutena tokatzen den lekutik arrastaka ateratzen gaituztenean. Baina pentsatzen duen norbaitek kalean hau galdetzen duenean triste jartzen naiz.

Gaur egun, Estatuak inoiz baino kontrolatuago gaitu, inoiz baino adierazpen askatasun gutxiago daukagu, eta gaur inoiz baino handiagoa da ejerzitoari (eta poliziari) zuzendutako aurrekontua. Baina horren beharra dugula sinetsi dugu, edota gauzak aldatzeko bide demokratiko ofizialak (Estatuaren beste tresna bat) jarraitzea baino ez dagoela sinetsi dugu.

Zertarako ejerzitoak? Zein da gure benetako etsaia? Ez al dira langabezia, pobrezia, gosea, ingurugiro arazoa, genero desberdintasunak, bazterketa, eta abar gure benetako etsaiak? Desberdintasunak gorrotoa sortzen du, eta munduko biztanleen %15ek planetaren errekurtsioen %85 kontsumitzen dute. Atera kontuak.

Ejerzitoak eta armen industriak injustizia honen bermea dira. Ondorioz, negozio hau mantentzeko gerrak behar dira. Norbaitek sinisten al du ekintza humanitarioetan? Azkenean nori egiten diote mesede? Denborak bakoitza dagokion lekuan ipintzen omen du, Irak adibide garbia da.

“Bakea behar dugu” bai, baina hau eskatu eta armak sortzen dituzten enpresak diruarekin bultzatzea ez da zilegi. Uztailaren 6an

«Euskal Herrian Espainiako estatuko arma lantegi kontzentrazio handiena dago»

lau lagun antimilitarista Areetan dagoen Sener enpresan sartu ziren euren arma produkzioa salatzeko. Sener (eta bere esku dagoen ITP) proiektu zibil eta militar ezberdinen artean hurrengo gauzak ekoizten ditu: Eurofighterraren motorra, Taurus misil berriak (Tomahawken antzerakoak: hegazkin, urpekuntzi eta itsasontzietan erabiltzeko), Tigre helikopteroak, tanke simuladoreak, etab.

Ekintza ez-biolento hau Getxo Antimilitarista eta KEMen artean burutu zuten. Baina ekintza hau Getxo Antimilitaristaren azkena izan da, taldea errelebo faltagatik desagertuko da-eta. Egun tristea da, ez dakit zerbait lortu dugun, baina gure asanbladetan egon garenon artean behintzat zerbait geratu da.

Gure espiritu desobedientea maitasun erlazio bat bezala zaindu behar da, bestela galdu egiten da. Kritikoak izan gaitzen, gure nortasunari heldu behar diogu inposatzen dizkiguten gauzei desobeditzeko. Alternatiba ez-biolentoa egon daiteke: Getxo Antimilitaristan beti praktikatu dugu, eta oso ondo pasatuz

gainera! 4

Jon Bengoetxea
(Getxo Antimilitarista taldeko kidea)



[lehen]

GETXOKO UDAL LEIURUTEGA



[orain]

ASIER MENTXAKA

photoshop > adosatu gehiago Getxon



Irudiak eta manipulazioa: A. M.

Iraganez doa denbora* beti / GALEAKO GOTORLEKUA 1957-2005

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

[talaia]

salaketa > Getxon misiletarako piezak diseinatzen direla salatu dute



San Fermin egunaren bezperan armagintzaren aurkako entzierro berezia egin zuten Kontzientzia Eragozpen Mugimendua eta Getxo Antimilitarista taldeetako lagunek Areetako Sener enpresan. Antimilitaristek salatu zuten Getxoko enpresa honek Taurus Kepd-350 misiletarako turbo propulsoareak diseinatzen ditu. Eta ez da hau gurean armagintzan dabilen enpresa bakarra. Esaterako, Zamudioko teknologia parkean dagoen ITP Tigre gerrarako helikopteroaren fabrikazioan parte hartzen dabil. Antimilitaristek Eusko Jaurlaritzak jardura hauek arrisku-kapital sozietateen bitartez diruz laguntzen dituela ere ezagutzera eman zuten, hau guztia enpresa-proiektuen ihesa saihesteko aitzakia erabiliz egiten e du Jaurlaritzak. Hauxe izan da Getxo Antimilitarista taldeak burutuko duen azken ekintza, taldea bertan behera uztea erabaki dute eta. m

Antimilitaristen protesta ekintza

ekimena > uda euskaraz Bizarra Lepoanen eskutik

Bapiruke euskal tradizioko joko baten izena da, eta berba hau aukeratu zuten Bizarra Lepoan euskara elkarteko lagunek umeentzako udalekuei izena emateko, programaren filosofia ederto adierazten du eta: jolasaren bitartez haurrek euskaraz ondo pasatzea. Beraz, aurten euskara elkarteko kideek, Aldundiaren eta Udalaren laguntzaz, hirugarrenez antolatu dute Bapiruke, baita arrakasta handia lortu ere. Izan ere, hiru txandatan banaturik 300 haurretik gora hartuko du parte Bapiruken, bai Algortan bai Erromon. Toki barik geratu den umerik ere egon da. Zorionak beraz Bizarra Lepoaneko lagunei! m



Bapiruke programan dauden haur batzuk begiraleekin, Algortako Zabala ikastexean

[erretratua]



25 urtetik gora daramatza Iñaki Gonzalezek Babes Zibilean beharrean

Iñaki Gonzalez > Getxoko Babes Zibileko arduradun teknikoa

Bere eginkizuna isila da, eta bere behar-orduak ez dauka etenik: “*Sakeleko telefonoa alboan daukadala egiten dut lo, badaezpada ere*”, diosku Iñaki Gonzalezek (Leioa, 1954). “*Bokazioz nago. Presioa jasateko gustatu egin behar zaizu hau, bestela nahiko zaila da hemen jardutea*”. Oin bat bulego handian (Getxoko Udaltzaingoaren eraikinean) eta bestea kalean: “*Gauza biak uztartu behar dira*”. Boluntario ibili zen ia 20 urtez Babes Zibileko arduradun, baina 1999az geroztik udal teknikaria du. Aurretik, Plentzian bizi den erizaintzan diplomatu honek 15 urte eman zituen Osakidetzan toxikomanoakaz beharrean: “*Metadona programaren sortzaileetako bat naiz*”. Esan digunez, egunean larrialdi bat gertatu zen iaz batez beste Getxon, “*eta gehienak etxeko suteak izan ziren*”. Iñakik poztasun handia sentitzen du edozein larrialdiren aurrean jendea laguntzeko prest dagoela ikusten duenean: “*Prestige-koa gertatu zenean, Getxon bakarrik, 1.200 boluntariok izena eman zuten*”. Une txarrak ere gertutik bizi izan ditu azken 25 urteotan, eta bat gogoratzen du bereziki: Oiz mendiko hegazkin-istripu lazgarri hura. “*Gertakarien lekuan bertan egoteaz gain, hogeit hamar egun pasa nituen gorpuen biltegian*”. 1983ko uholdeak ere gogoan dauka: “*Oso neketsua izan zen*”. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jon Urresti**

Paelletako sua piztu zenetik

Mende erdia beteko du aurten Paella txapelketak: **1956an Ayo, Bilbao eta Yurrebaso** lagun getxoztarren ekimenez jaio zen jaia eta **gaur arte Itxas Argiak** hartu du bere gain

Paella Egunaren hastapenetako gazteek burua urdinduta daukate gaur egun, gaurko gazteek gurasoen eskutik egin zuten lehenengoz Paella Egunerako bidea, eta oraingo umeek biharko paellak zelan ederto prestatu ikasten dabiltza. **50 urte ez dira azaren azpiko orriak, horregatik aspaldidanik Paella Eguna antolatzen duen Itxas Argia taldeak ospakizun berezia prestatu du.**



2.000 lagunentzako paella erraldoia egingo da eta etekinak Sahararen aldeko Aftal elkarteari emango dizkiote. Goiko argazkian, aspaldiko paella egun bat

Alabaina, Getxoko Itxas Argia taldea ez da Paella txapelketaren sortzailea, ia betidanik ekitaldiaren aita-ama ponteko izan bada ere. Itxas Argiak Julian Billelabeitiaren berbetan gogoratzen dute 1956ko uztailaren 25ean gertatutakoa: *“Lehenengo jai hura hiru lagun minen ekimenez antolatu zen: Damian Ayo, Antonio Bilbao eta Felix Yurrebaso. Getxoztarrok Irurena elkarte osatu zuten: ezustean antolatzen zituzten jarduerak, eta helburuak ustekabean eta irudimen handiz sortzen zituzten; horrela, Goienetxe baserriaren alboko landetan Getxoko I. Paella txapelketa antolatu zuten”*. Billelabeitiak dioenez, orduan ere txistulariek abiarazi zuten eguna, suziri eta zirindolak airtatu ziren eta 20 bat paella lehiatu ziren. Bigarren urtea ere Irurena elkarteok antolatu zuten, eta ordurako lekua txiki gelditu zen.

1958an jaioberria zen Itxas Argia elkarteak hartu zuen Irurenaren lekukoa, eta gaur arte indartsu ekarri dute. Urte hartan eta 1967ra arte Paella Eguna Azkorri hondartzara doan bide alboko landetan egin zen.

Aixerrotako landetan 1968tik

Udalak Azkorri aparkaleku eta bide berriak egin behar zituela eta topaleku aldatu egin zen: jabetza pribatuko Aixerrotako landak. Gaur egun ere handik hurbil ospatzen da, baina Udalaren lur-eremuan.

«Aurten Paella Eguna uztailaren 24an izango da»

Aurten 50. urteurrena dela ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Itxas Argiak urtean zehar: argazki erakusketa, Lañomendiko postontzi berezia, Getxoko Filatelia elkarteak oparitutako zigilua... Horrez gainera, Paella Egunaren bezperan zaldi-probak egongo dira Andra Mariako probalekuan (17:00). Hilaren 24an egingo da jaia aurten, Itxas Argiakok 2.000 lagunentzako paella egingo dute, 200 kg

arroz eta 600kg egur banatuko dituzte, Bizarra Lepoan elkarteko karpapean pailazoen ikuskizuna egongo da... Eta Itxas Argiak presidente Endika Korkostegik dioenez, *“poztekoa da lehenengo paellak antolatu zituzten gizonen ekimena bizirik jarraitzen duela ikustea, baina ezin dugu dena aurtengo ospakizunean eman eta hurrengo urtean paellak barik genatu”*. m

Egitaraua

- Izen ematea: 10:30-10:50.
- Euskal Herriko lur gaineko Soka-tira finala (640kg): 10:30.
- Dantza erakustaldia: Itxas Argia. 12:00.
- Bertso saioa: Aitor Mendiluze, Amets Arzallus eta Xabi Paia. 13:00.
- Paella erraldoiaren dastaketa: 14:30.
- Sari banaketa: 17:30.
- Erromeria Dantza Pikogaz: 19:00.

Geure euskara ez galtzeko

Getxoren eta Mankomunitatearen arteko **hitzarmena**



Imanol Landa, Iñaki Zarraoa, Juan Olea (UKMko presidentea) eta Edorta España (euskara teknikaria)

Uribe Kostako azpieuskalkia aztertzeke, jasotzeko, eta ondoren zabaldu eta ezagutarazteko indarrak batu dituzte Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten udalek (Gorliz, Plentzia, Lemoiz, Urduliz, Barrika, Sopela eta Berango) eta Getxoko Udalak. Hiru urteko iraupena daukan hitzarmenak eskualdeko garaiko euskaldun zaharren berbak, esaera zaharrak, esakerak, kantuak, pasadizoak... gal ez daitezen jasotzea dauka helburu, horiek guztiak gaur egungo euskaldun zahar zein berriek berrerrabili ditzaten. Azterketaren eta bil-

ketaren ostean, batutakoagaz Lehen eta Haur Hezkuntzan lantzeko materiala argitaratuko dute (DVD, gida didaktikoa eta CD bat zeinetan kanta, istorio, jolas, jantzi eta landareen bertoko izenak batzen diren). Egitasmoa aurrera eramateko 85.000 euro bideratuko dituzte denetara: Getxoko Udalak kopuruaren %51,5 ipiniko du eta Uribe Kostako Mankomunitateak (UKM) %48,5. 95 bat laguni egingo diote berbaldea (argazkia, audioa eta bideoak gordeko dituzte) eta lan hori egiteko lehiaketa publikoa deituko dute. m

HIRUGARREN MAILAN EGONGO DA GETXO CD DATORREN URTEAN

Getxo CD taldeak hirugarren mailarako txartela lortu zuen ekaina amaieran. Hori ospatzeko orain dela gutxi bazkari batean batu ziren jokalariek, zale eta taldeko teknikoak. Mailaz igotzeko saria EHU taldeagaz batera lortu zuten getxoztarrek eta horrela datorren urtean 3. mailako futbol taldeak lehiatuko dira. Urteetako esfortzuak eta ahaleginak, beraz, saria izan du. Zorionak!

Igoera ospatzeko egin zuten bazkaria



ARENAS ETA REALAREN ARTEKO HITZARMENA

Orain dela gutxi jakinarazi badute ere iaz sinatu ei zuten Arenas futbol taldeak eta Realak hitzarmena. Horrela, Getxoko Taldea Athleticagaz zeukan akordioa bertan behera geratu da. 1909an jaiotako taldeak betidanik Athleticagaz sinatu izan du hitzarmena, horregatik orain Realagaz sinatzeak zaleak, futbolariak eta beste hainbeste zur eta lur utzi ditu.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

A Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa

Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa



Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Getxoko Andra Mari Zerbitzu Estazioa

Txartel hau aurkezten baduzu %50 merkeago garbituko dizugu autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

Euskaraz

berba egin gura dutenak ezagutzeko ikurra

Geure artean euskaraz berba egin gura dugunak elkar ezagutarazteko logotipo bat sortzeko asmoa dauka Getxoko Udalak: pin edota pegatina identifikatzailea. Askotan albokoak euskara jakingo duen zalantza edukitzen dugu, eta badaezpada edo, ez ahalegintzearen, erdarara jotzen dugu. Bada, logotipo horregaz euskaldunak elkar identifikatu eta euskaraz egitea ahalbidetu gura du Udalak. Gainera, herritarrei zuzenduta dagoen arren, denda zein ostalaritzarako erabilgarri izateko helburua ere edukiko du logotipoak. m

NIKARAGUAKO TIPITAPA HERRIKO PROGRAMA BATERAKO LAGUNTZA

Euskal Herrian Hegoaldeko instituzio, erakunde sozial eta Komunitateekiko harreman solidarioen alde diharduten esperientzia lokalak biltzen dituen lankidetzarako elkarteak, Euskal Fondoari, 47.000 euroko laguntza emango dio aurtun Getxoko Udalak. Kopuru horretatik 5.000 bat euro urteroko kuota da eta gainontzeko zenbatekoa Nikaraguako Tipitapan garatzen dabilen programara bideratuko da. Egitasmoa orain 5 urte ipini zen martxan, ordutik Udalak 200.0000 euro-edo eman ditu.

GA
GALEA
ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12

Nerea Intxausti > aktoregaia

“Txikitatik antzeztu dut ispiluaren aurrean”



“Izarren arteraino” heltzea da 11 urteko nesko pinpirin eta saltsero honen helburua

Adivina quien soy (Enrique Urbizu) filme-ko Estrellaren papera antzeztu du Nerea Intxaustik. “Películas para no dormir” (Tele5 eta Filmax-en egitasmoa) 6 tb moviez osatutako zikloko filma da, eta aipatu telebista kateak datorren urtean emango du. 11 urteko algortarrak Goya Toledo, Jose Maria Pou eta Aitor Mazo aktoreakaz jardun du.

—Zelan eduki zenuen filmaren berri?

—Betidanik casting bat egin nahi izan dut, aukera baten zain denbora luzea neraman eta Filmax ekoiztetxeok esan zidaten pelikula baterako casting-a zegoela Bartzelonan, joan eta dena ondo irten zen. Egin dudana lehenengo casting-a da eta lehenengo lana. Nire pertsonaia 11 urteko neska bat da, denbora asko pasatzen du bakarrik bere ama sendagile delako. Beldurrezko liburuak eta filmak asko gustatzen zaizkio, eta ez dute beldurtzen. Istorio horietako pertsonaiak, azkenean, bere buruan bizi eta bere lagunak dira. Baina horietako bat, ez dut esango zein, ikusiko duzue, ez da alegiazkoa, benetakoa da.

—Eta nagusitzean aktore izan gura duzu...

—Bai, asko pentsatu dut eta erabakita dautkat. Azkeneraino lan egingo dut hori lortzeko, azkenera arte borrokatuko dut. Badakit ez dela erraza izango, lehenengo asko ikasi beharko dudala... Grabaketa apirilean hasi eta

hilabete eta erdi luzatu zen, baina ez nion ikas-teari utzi, andereñoa neukan, baita eskola ordu kopuru bera ere. Mundu hori asko gustatzen zait eta pelikula egin baino lehen ere ispiluaren aurrean antzezten nuen, txikitatik.

—Zinearen erraietatik zer harritu zaitu?

—Orain ez duzu ikusten pelikula ikusle baten begiekin, orain badakizu hau zelan egin den, bestea hala egin zela... Askok harritu ninduen hartzeak zenbat aldiz errepikatzen diren, uste nuen hori azkarrago egiten zela! Eta zaila da imajinatzea hartzeak zein ordenatan joango diren edota filma amaituta zelan geratuko den, gainera oraindik ez dut pelikula ikusi. Bestalde, taldekoak zein jatorrak ziren ere harritu ninduen.

“Nire lehenengo casting-a eta pelikula izan da”

—Zure guraso eta lagunek zer diotsute?

—Nire gurasoek ulertzen dute, izan ere, urteak daramatzat “txapa” ematen. Lehenengo ikasketak direla-eta esaten zidaten... ez nituen nota lar onak ateratzen, baina azken azterketa hauek, benetan, oso ondo atera zaizkit. Eta lagunei, grabatetik bueltatu nintzanean ni lehenengo bera naizela esan nien, ez naizela harroputz bihurtuko, ni betiko astokilo bera naiz. m

Saninazioak

Hilaren azken egunek dantza eragiteko momentua **gero eta hurbilago**



Saninazioetako Jai Batzordea jo ta su ibili da egitaraua prestatzen

Hilaren 28tik 31ra San Inazio jaietan gozatu ez duen getxoxtarik ez da jai. Egitarauko salta guztiak ezin sartu letra-lapiko honetan, baina hor doaz zaporetuenak. Egueneko 18:30ean Tomanganea koadrilakoek irakurriko dute pregoia, eta ikurrinari gorazarre egin ostean ALBEkoek emango diote su txupinari. Sardinadaren ostean Egaña, Amuriza, Fredi Paia eta Oihane Enbeitaren bertso saioa egongo da Kasinoan. Ordu berean (20:30) Teilagorri plazan jota eta arin-arin txapelketa izango da. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira: Txiki Otaegin UKbilkada, Züproseries eta Desechos taldeek jardungo dute eta Kasinoan All Jazz Era tal-

deak. Barikua gazteen eguna izango da: goizean gazteentzako futbitoia eta saskibaloia (Bartzokia), umeentzako margo lantegia (Alango), eta igela eta tiragoma txapelketa (Zabala eskola) iragarri dituzte. Sahara eta Palestina herriekiko elkartasun ekitaldia 12:00etan antolatuta. Gero baserritar edo arrantzalez jantzitako gazteen bazkaria prestatu dute. Larraintza eta Basajaun taldeagaz erromeria egongo da 20:00etan eta Reggae-Ragga jaialdia 21:00etan. Zapatua umeen eguna da, bazkaldu aurretik puzgarriak, lantegiak... egongo dira. (Hilaren 30eko eta 31ko ekitaldi gehiago alboan). m

ERROMO/PINUETAKO JAIK, ABUZTUAK 2-7

Erromo/Pinuetako Jai Batzordeak herri jaiak berreskuratu eta bultzatzeko helburua dauka aurtun eta horretarako hainbat erromeria eta dantzaldi antolatu dituzte. Jaietan denon parte hartzea aldarrikatzen dute eta horregatik gazteei ere herriko kaleetako jai-giroan murgiltzeko deia luzatu eta horretarako beharra dagoela adierazi dute. Makina bat ekitaldi daude iragarrita, ezin alde batera utzi berbarako: Pinueta-Erromoko argazki zaharren eta Euskal Kultura bultzatzeko erakusketa, koadrilen arteko txapelketa, Ska-reggae jaialdia (hilak 6), Nekazal azoka (hilak 7), etab.

PORTU ZAHARREKO JAIK, ABUZTUAK 12-15

Erromon azken zirrindola amatatuko denean Portu Zaharrek piztuko du jai-sua. Aurtun diru eskasia dela-eta egitaraua apur bat moldatu behar izan dute, izan ere, “Udalaren aurrekontua baxua da” azaldu dute jai-batzordetik. Herri jaiak, parekideak eta euskaldunak izatea gura dute: ekitaldiak euskaraz egingo dira eta arrantzez jantzita joateko deia luzatu dute. Egitarauak betiko xarma dakar: kukaina, marmitako txapelketa, antzarak, umeen jolasak, sokamuturra...

Ekitaldi batzuk

- **Bertso saioak** Hilak 29, 30 eta 31. 13:00. Kasinoa. Bertso bazkaria: hilak 30. 14:30. The Pipers Irish Pub (izen-ematea bertan).
- **XXVII. Getxoko Ikurrina.** Hilak 30. 12:00.
- **Eskupilota partida.** Martinez de Irujo-Eulate/Titin-Gofñi II. Hilak 30. 17:00. Andra Mariko kiroldegia.
- **LX. San Inazio txirrindularitza zirkuitoa.** Ricardo Otxoari 5. omenaldia. Hilak 31.
- **VII. Txipirol lehiaketa.** Hilak 31. 8:30.
- **X. Kantxa Kirol Moda herri krosa.** Hilak 31. 11:00.
- **Herri Kirolak.** Hilak 31. 17:30. Telletxe.
- **Eneko Caballero VII. Futbito txapelketa.** Finalak. Hilak 31. 20:00.
- **Ene Bada.** Hilak 31. 20:00. San Nikolas.



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Zer egin oporretan?

Leioan bertan badago oporrak modu ezberdinetan antolatzen aukera

Udan gaude eta horrek esan nahi du jende gehienak, lehenago edo beranduago, luzeagoak edo laburragoak, oporrak hartuko dituela. Kasu honetan ze bidaia mota aukeratu eta aurrekontura moldatzea izaten da buruhausterik handiena; hondartzara joan, hiriak ezagutu, abentura, atzerria... Aukerak asko dira. Leioan bertan badago aukera dezente oporrak antolatzen.

Ohikoena bidaia agentzietara jotzea izaten da. Bertan norakoa, aurrekontua eta datak emanda oporrak bezeroaren nahien arabera antolatzen dituzte. Leioako Barcelo Viajes bidaia agentziako Rosa Colladoren arabera urtean zehar pilatutako nekeari atsenden ematea bilatzen du jende ugari, "horre-

«Naturan enpresak abentura kirola egiteko egun bateko txangoak eskaintzen ditu»

gatik, kostaldea eta hondartza izaten dira udan gehien eskatzen diren destinoak". Hala ere, atzerria edo hiriburueta doan leioaztarrik badago, "gaur egun jendea asko mugitzen da eta eskaera oso zabala da".

Bidaia antolatuetatik aldendu eta mugikortasuna edo askatasuna baloratzen duenak badu bestelako aukerarik. Leioan karabanak eta denda-atoiak (erremolkeak) alokatzen dituzten tokiak daude Avanzada errepidearen bi aldeetan. Caravanas Nomadako Bonifacio Alonsok karabana-autoak alokatzen



Karabana bat alokatzeak egunean 180 euro inguru balio du

ditu eta ibilgailu hauek eskaintzen duten askatasuna azpimarratzen du: "Sukaldea, bainugela, logela, dena gainean daramazu, gurpilak gaineko apartamentua da". Udan hauen eskaera handitzen da eta prezioek ere gora egiten dute. Halako etxe gurgilduna alokatzeak egunean 180 eurotik gora balio du.

Herritik atera gabe badago ohikotasunetik ateratzeko biderik. Herrian bertan abentura kirolaz gozatzeko egun paregabea antola daiteke. Rafting, piragua, eskalada, arku-

jaurtiketa, mendi bizikleta, puenting... egiteko irteerak antolatzen ditu Leioan dagoen Naturan enpresak. Astebururako zein egun baterako aukera daitezke jarduerak eta lekuak ere bezeroaren esku daude. Urduliz, Urdaibai, Sobron, Zugaztieta, eta hainbat toki gehiagotan kirola egiteko aukera. Hori bai, ekintza batzuk leku zehatzetan egin behar dira. m

HARREMANETARAKO
Naturan: 94 431 58 42, www.naturan.es
Caravanas Nomada: 94 471 0 07

Auzotik elkarteak

Leioako auzotarrak biltzeko sortu den talde honek **eztabaida piztu** gura du herrian



Argazkian, Leioako bulebarra

Leioako biztanleen elkarteak da Auzotik. Elkarteko bozeramaile Asier Garciak komentatu digunez, orain urte pasa sortu zen herriak daraman garapenez arduratuta leioaztar batzuk elkartu zirenean. "Gero eta jende gehiago bizi da eta gero eta hirigintza erakuntza handiagoak egiten dira herrian, horrek arriskuan jartzen du leioaztarrena den ondarea. Iturriak, ondare kulturala, bizimodua, herriaren nortasuna galtzen doala ikusita sortu genuen taldea". Beraz, Udal gobernuaren kontrol mekanismo moduan hasi da Auzotik, "herrian debatea egon dadin laguntzen dugu".

Azkenaldian, tranbia proiektuan daude murgilduta herriko bizimoduan zuzenean eragingo duelako. Herriko gainerako auzo

elkarrekin batera proposamen berria aurkeztu dute, euren ustez mahai gainean dagoenak herriko garraio arazoa konpontzen ez duela: "Unibertsitate gunea sortzeko pentsatutako proiektua da". Alternatiba Sabino Arana kalea igaro beharrean Bilbao Libano kalea zeharkatzea da, hau zabalagoa da-eta. Hemendik, San Juan Auzora eta gero Avanzada ondotik skate-parkera Artatzagane kaletik gora egiteko. "Gure alternatibak 3 minutu gehiago behar ditu, baina auzo gehiago lotzen dituela uste dugu. Gainera, arkitektoen aholkuz landu dugu ibilbide hau".

Horrez gain, ingurugiroa, komertzio txikia, errepideak, kultura eta herriarekin zer ikusia duten gaiak aztertzen dituzte. m

AUTOEI ITXITA EGONGO DA ARTATZAGANE SARBIDEA

Artatzagane kalerako sarrera ibilgailueei itxita egongo da uztailean eta abuztuan. Inarrotzako biribilguneko beharren ondorioz Avanzada errepideko alboko bidearekin lotzen duen lekutik ezingo da igaro. Aipatu epean Artatzagane auzora sartu edo bertatik irteteko Aldekoaneko biribilguneak jo beharko da. Horrek eragina izango du garraio publikoko A2161 linean (Bizkaiko Zubia-EHU-Laukiz). Horrenbestez, joateko nahiz etortzeko, Elexalde etorbideetik igaroko da autobusa, udaletxearen aurretik. Aldekoaneko geralekuak funtzionatzen jarraituko du, eta ibilbidearen gainontzeko zatian ez da beste aldaketarik egongo.

LAMIAKO FUTBOL ZELAIA ERABERRITUTA

Lamiakoko futbol zelai berria martxan da. BBK-k Solidaritate Fondoaren bidez bere jabetzakoa ziren instalakuntzak berritzeko 160.000 euro gastatu ditu. Goitik behera eraberritu du kirol-gunea, aldagela eta zelaia erabat aldatuz. Bestalde, zelaia kudeaketa Lamiakoko Kultur eta Kirol Elkartearen esku utziko du BBK-k. Zelai hau atzerrik etorritako biztanle askoren bilgune izaten da, eta bertan herrialdeen arteko partidak antolatzen dituzte. Inaugurazio ekitaldian, esaterako, Kolonbia-Afrika eta Bolivia-Latinoamerika jokatu zuten.

AUZOETAKO JAIK

Leioa auzotar herria izaki, jai ugari ospatzen ditu. Hilabeterik beroenetan, udaberria eta udazkena bitartean, pilatzen dira auzoetako jai hauek. Maiatzaren 15ean San Isidro jaiekin hasi eta irailan Txoperako San Miguel festarekin bukatuko dira dibertsio egunak. Tartean Lamiakoko Maskarada entzutetsua maiatzaren 29an; San Bartolome eguneko marmitako lehiaketa abuztuaren 24an; irailean Ondiz eta Udondo auzoen txanda hilaren 8an eta 10ean. Ez dago dudarik, udarekin batera jai giroa heldu da.

ERROTULOAK ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK egiten ditugu

THE BEST

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo taberna eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

BETIKO IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

san inazio autoeskola 1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP **baimenak**

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45 **ALGORTA**

Astrabuduako Jai Batzordea

Abuztuaren 4tik 10era ospatuko dituzte **San Lorentzo jaiak** eta Jai Batzordeak ahalegin berezia egin du egitarauan **era askotako** jendeari zuzendutako **ekitaldiak** sartzeko, bereziki gazteei begira

22 eta 32 urte arteko 9 mutilek osatzen dute Astrabuduako Jai Batzordea. Iker, Aitor, Jabi, Josu, Arrizen, Dabid, Santi, Jabi eta Asier gazteak badira ere, ez dira berriak lan honetan, gehienek hainbat urte daramate Batzordean. Neskari ez omen da parte hartze-
ra animatu, gero lagundu laguntzen badute ere.



Argazkian Iker, Santi, Asier, Harri, Jabi, Josu, Dabid, eta Jabi. Aitor falta da.

Duela sei hilabete hasi ziren 50.000 euroko aurrekontua daukaten jaien antolakuntzan, lanik gehiena bizpahiru hilabeteran pilatzen bada ere. Udalak 36.152,21 euroko dirulaguntza emango die eta barraketatik eta idi probetatik aterako dute beste zati bat. Baina horrekin ez dituzte kontuak borobiltzen eta aurreko hilabeteetan zozketa baterako zenbakiak saltzen ibili dira eta auzoko denda eta tabernetan ere eskatu dute dirua. Eta horixe ei da okerrenena, dendarik denda diru eske ibiltzea. “Sarritan bi, hiru edo lau aldiz joan behar duzu eta azkenean ezer ez edo bost euro jasotzeko”.

Jaietan jende guztiak parte hartzeko eta disfrutatzeko moduko ekitaldiak antolatu eta euskarari leku zabala egiten saiatzen direla esan digute. Gainera, azken urteotan aldaketa nabaria gertatu ei da auzoko jaietan. “Orain kanpoko jendea ere etortzen da Astrabuduara, kontzertu potenteak antolatzen ditugulako”. Aurten, esaterako, Koma eta Boikot taldeak egongo dira ostiralean, 5 Kontra eta Sutagar larunbatean, eta Kukuma abuztuaren 10ean.

Berrikuntzen artean, eta beste kultura batzuetako elementuak txertatu nahian, *capoira* dantza ekitaldia egongo da ostiralean. Eta aurreko urteetako ohiturari jarraituz, larunbat iluntzeko zortzietatik aurrera Astrabuduako kaleak musikaz beteko dituzte Brasil, Eskozia eta Euskal Herriko hainbat taldek, Trabudu dantza taldeak antolatutako Musikalean ekitaldian.

«Gazte jendea erakartzeko kontzertu indartsuak antolatu dituzte»

Jai Batzordeko kide izatea jaietan hobeto pasatzeko modua da, antza: “*Inplikatuago egonda hobeto pasatzen dugu*”. Eta aste osoa daukate auzoan jai giroan murgiltzeko. Eutsi goiari! ^m

Ekitaldi batzuk

- **Abuztuak 4, osteguna**
19:00 Koadrilen jaitsiera, txupinazoa.
23:30 Herriko taldeen kontzertua.
23:30 Txixarrilloa eta dantza lehiaketa.
- **Abuztuak 5, ostirala**
11:30 Tortilla txapelketa.
00:00 Kontzertua: Koma eta Boikot.
- **Abuztuak 6, zapatua**
10:00 Marmitako txapelketa.
15:30 Motoziklismoa: Euskadiko txapelketa.
23:00 Kontzertua: 5 Kontra eta Su Ta Gar.
- **Abuztuak 7, igandea. Euskararen eguna**
10:00 Sukalki txapelketa.
17:30 Idi probak, txapela jaurtiketa.
23:45 Su ikusgarriak (Valentziako Tur).
- **Abuztuak 9, asteartea**
20:30 Bilbainadak, Los Txikis taldea.
- **Abuztuak 10, asteazkena,**
13:30 Jubilatuentzako luntxa.
20:00 Trabudu dantza taldea.
22:30 Euskal Folk kontzertua, Kukuma.

Iratxe Lasa > Erandioko toponimia aztertzen dabil

“Erandiok inguruko herriek baino galera nabariagoa izan dauala uste dot”



Argazkian, Iratxe Lasa

Iratxek Udalaren beka jaso du herriko toponimia batu, aztertu eta finkatzeko. Otsailean hasi zen eta 14 hilabeteko epea dauka lana egiteko, Euskaltzaindiaren zuzendaritzapean. **Txorierriko euskararen azterketa toponimiaren bitartez doktoretza tesiaren atal bat izango da Erandioko ikerketa eta, oraingoz, iturri bibliografiko eta kartografikoen erauzketan buru belarri murgilduta dabil.**

—Esaiguzu zer dan Erandioko toponimiarren gaineko ikerketa.

—Toponimia, eremu geografiko baten leku-izenen multzoa da eta ikerketa honetan Erandioko baserri, mendi, erreka, auzo, baso, lur-sail eta abarren izenak batuko doguz. Galdutakoak berreskuratzea eta ordezkapenik izan bada izen zaharra batzea da ikerketaren oinarria. Baina toponimoak edo leku-izenak batzeaz gain arautu be egingo dira, alegia, idazteko era egokiena proposatuko da, beti be Euskaltzaindiaren irizpideei jarraituz.

—Zein da helburua?

—Lan honen helburu argiena Erandioko ondare kulturala batu eta gordetea da, toponimoak ondare kulturalaren eta hizkuntza ondarearen atal garrantzitsua diralako. Jandak galdurik diran hainbat lekuren izenak

berreskuratu nahi dira, datozenentzako gorde ahal izateko. Baina horrez gain, badira bestelako erabilerak be; hirigintzan berbarako, auzo, kale, auzune edo parke barri bati izena emoterako orduan dagoana erabili behar da, barriak asmetan ibili beharrean. Gainera, toponimiak bertako euskera zaharraren gaineko hainbat datu be emon leuskigu.

“Lan honen helburu argiena Erandioko ondare kulturala batu eta gordetea da”

—Zelan egiten da ikerketa?

—Alde batetik, agiri eta dokumentu zahar-
rak aztertu eta berauetan ageri diran izenak batuko dira, eta bestetik Erandioko herritarrei galdetuko jake. Herritar zahar eta euskaldunak beharko doguz horretarako, herria ondo ezagutzen dabenak. Bizirik dagozan formak emoteaz gain, euren ahoskeraren barri be emongo deuskue.

—Orain arte aztertu dozunagatik, ze berezitasun eduki leike Erandioko ikerketak?

—Erandiok iraultza industrial berbertatik

bizi izan dau, baita haren ondorioak jasan be. Horreri aurkako egoera politikoa gehituta, Erandioko euskerak atzera pausuak emon ebazan. Gainera fisikoki be Erandiok eraldaketa handia jasan dau eta horrek ekarri eban toponimo asko galdu edo erdarakoakaitik ordezkatzeta. Inguruko herriek baino galera nabariagoa izan dauala uste dot, eta joan dan mendean galdu edo ordezkaturako izen asko berreskuratuko dirala uste dot. Esate baterako gaur egun San Bernabe izenagaz ezaguna dan mendia, garai batean Sanpablomendi izenagaz ezagutzen zan, eta beste izen batzuk be izan ebazan, Enekuribasoa besteak beste. Dana dala, lana amaitu arte ezin atara geinke ondoriorik. ^m

XOMORROAK HAURRENTZAKO ANTZERKI MUSIKALA HILAREN 29AN

Muguruzaren musikaz atondutako saioa Altzagako kiroldegian eskainiko dute uztailearen 29an goizeko 11:30ean. Gonbidapenak Euskara Zerbitzuan eskuratu behar dira.

UKRAINAKO BOST NESKA-MUTIL ARRIAGAN



Alexandra, Taras, Elena, Vadim eta Nasar hemengo familiekin Arriagako jaietan

Ukrainatik etorritako 10 eta 16 urte bitarteko 5 neska-mutilek Arriagako familiekin igaroko dute uda. Ekainaren 24an iritsi ziren eta abuztuaren 26ra arte egongo dira gurean. Lehenago ere gurean egondakoak dira guztiak. Josebiñek esan digunez, aurtengoa bederatzigaren urtea da Alexandra bere etxera datorrena eta beretzat beste alaba bat da. Orain 16 urte ditu. Besteek ere lauzpabost urte daramatzate hona etortzen.


Joan dira sanpedroak

Garizuma baino luzeago egiten zaigu jaien etorrerari itxarotea. Eta begiek klisk egin orduko joan dira. Ostea da hurrengo eguretako jaiak uzten duten aztarna bakarra. Ostera, apurka-apurka geure buruak iratzartzen doazen heinean, momentu gogoangarriak ere bururaten zaizkigu, eta horietako batzuen lekuko dira argazkiok. "TaoEZisten" aldarrikapenak eta arrautzak izan ziren protagonista jaien hasieran, dantzarien mugimendu beroek baretu zuten sopeloztarren haserrea, umeen jolasek eta irribarreak alaitu zituzten egunak, musika taldeek argitu zituzten gauak... Eta daborduko gutxiago gelditzen da hurrengo sanpedroetarako!



II. Karramarro Fish txapelketa

Hilaren 23an eta 24an Barinatxe hondartzan



Europako Totally Crustaceous Tour 2005-06 txapelketaren kartela

Volcom Stone-k antolatzen duen VQS (Volcom Qualifying Series) surf txapelketa-ko probetako bat hartuko du Barinatxe hondartzak: Karramarro Fish, hain zuzen. VQS txapelketak surfeko World Qualifying Series txapelketagaz hitz-jokoa egiten du, baina bien arteko desberdintasunen artean daude VQS musu-truk dela eta gaztetxoentzat bakarrik dela. VQS mundu osoan egiten den txapelketa da, Karramarro Fish Europako Biraren (Totally Crustaceous Tour 2005-06) barruan dagoen txapelketa da eta proba bakoitzak arrain edo krustazeo baten izena daroa: Norwegian Cod Fish (makailua), Frantziar Mullet Fish (barbarina)... Karramarro Fish uztailaren 23an eta 24an egingo da, esan legez, Barinatxe hondar-

tzan. Goizeko 9:00etatik aurrera gura duen neska-mutil surfistak parte har dezake txapelketan, hurrengo mailetan: sub-14, sub-16 eta Pro-am. Ostean, paella erraldoi bat prestatuko dute, eta musika "ona" ez da faltako.


Sari banaketa hilaren 24an

Volcomeko Xabier Pintorrek azaldu duenez, neska-mutil guztientzako opariak egongo dira eta puntakoenentzako sariak. Horretarako guztirako, Volcomek marka batzuen babes bere badauka: Nixon, Reef, Electric... Hilaren 24an egingo da sari banaketa La Triangu alboko surf eskolan eta ondoren guraso eta gaztetxoentzako barbakoa egongo da. m

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak


Sertutxa 4, Sopela
Telf: erreserbak: 645 732 991



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

LAIKAK Taberna

Zatoz gure tabernara
Erdi Aroko azokan!!

Bentatxu, 2
48600 Sopela

AURTEN EZ DA EGINGO BERANGOKO AUTOMOBILISMO IGOERA

Hirugarren edizioa beteko zuen aurten Berangoko Automobilismo Igoerak. Alabaina, lasterketa egiteko baimenik ez dute lortu antolatzaileek. Berangoko alkate Miren Dobaranek arrazoitu duenez, "guretzako pena handia da froga polita delako, baina badaude arrazoi batzuk baimenik ez emateko: errepidea oso estua da eta gero eta jende gehiago dator, arriskutsua da; gainera frogaren aurreko egunean gidari ez ofizialak frogak egiten ibiltzen dira, zoroarena egiten, eta ez guk ezta antolatzaileek ere hori ezin dugu kontrolatu; zeezer gertatzen bada, istripuren bat... Udalak erantzun behar du, pena baina aurreko guztiak ezin kontrolatu dezakegun ezin dugu baimenik eman; horrez gain auzotarrek ere sinadura bilketa egin eta aurkeztu egin digute". Osterantzean, datorren urteari begira arrisku eta arazo horiek guztiak zelan kontrolatu eta konpondu daitezkeen aztertzen ahaleginduko direla jakinarazi du Dobaranek. Hala ere, antolatzaileek iraila edo urrirako proba honen ordezkoko ekimen bat antolatuko dutela aurreratu dute.

KADETEEN ETA PROFESIOALEN TXIRRINDULARITZA LASTERKETA BANA

Berangoko Txirrindulari Eskolak eta Elkarteak bi txirrindularitza lasterketa eder antolatzen dihardu. Santa Anako Sari Nagusia hilaren 26an izango da (16:30) eta 1. eta 2. mailako kadeteak lehiatuko dira bertan. Kadeteek ibilbideari 13 itzuli eman beharko dizkiote, 40 km guztira. Bestalde, V. Ricardo Otxoa Sari Nagusia abuztuaren 4rako iragarri dute eta bertan 23 urte azpiko eliteko txirrindulariak ikusteko aukera egongo da. Hitzordua 16:00etan ipini dute Simon Otxandategi kalean eta txirrindulariek 113 km egin beharko dituzte helmugaratu baino lehen. Zaleek, beraz, badaukate zita Tourraren osterako ere.

Santanek lekukoa emango diete santodomingoei



Santa Ana eta Santo Domingo jaietako Jai Batzardea

Uztailaren akabuak jaien hasiera dakar berangoztarrentzat, San Ana jaiak ospatuko dituzte lehenengo, eta handik gutxira santodomingoak. Hilaren 24an, jaien hasierako txupina 16:00etan aineratuko da, koadrilen jaitsierako hitzordua 19:00etan ipini dute, umeek 20:30ean daukate zita Marsel magoagaz eta gauean Estropajo eta Su Ta Gar taldeen kontzertuak egongo dira. Astelehena txistularien kalejirak itzartuko du, egun osoan haur parkea egongo da, zaldi-probak 18:00etan hasiko dira, ostean play-back lehiaketa eta gauerdian Kauta eta Ene Badaren kontzertua. Azken egunean "aitite eta amamentzako" hamaiketako eta dantzak, txirrindularitza lasterketa, Patxin eta Po-

txin pailazoak, zaldi-probak, etab. iragarri dituzte. Eta santanak agurtzeko Laiotzen erromeria egongo da.

Santodomingoak

Santo Domingo jaietako (abuztuak 4-6) egitaraua ere ekitaldiz lepo dator, horra batzuk: egunean txirrindularitza lasterketa, idi-probak, Deabru Beltzak taldearen antzezlanak eta Los Moñas eta Amaiur taldeen kontzertua; barikuan, mus txapelketa, ES3IN antzerki lana eta herriko taldeen kontzertua; eta festen amaierarako (abuztuak 6) Giramondo haur antzerkia, koadrilen olimpiadak eta Trixixio taldearen erromeria. Orduan esango diete berangoztarrek agur herriko jaietara. m

Gure Izerdia Txokoa

Hemeri bizitza ematen 40 urte baino gehiago



Ez daude diren guztiak, gizonetakoak falta dira, baina dauden guztiak dira Gure Izerdia Txokokoak

Orain 40-50 urte ez ei zegoen gazteak elkartzeko lekuri Barrikan. Eguraldi hona egiten zuenean nagusien egoitza zegoen inguruko landa batean batzen ziren orduko gazte barrikarrak bi intxaurrondoren gerizpean abesten, gitarra jotzen... "alferren landa deitzen genion eta han batzen ginen gazte danak", dauka gogoan Gure Izerdia Txokoko lagunetako batek. Baina eguraldi txarraz intxaurrondoak ez ziren euritako onak. Garai hartan ailegatu zen herrira, seminariorik irten berria zen Angel Sus-taeta abadea eta gazteen gabezia ikusita zera otu zitzaion: "Abade-etxe azpiko oilategi ohia konpondu eta bertan elkargune bat egin dezakegu". Eta gazteen eta abadearen lanagaz jaio zen orain dela 40 urte baino gehiago Gure Izerdia Txokoa Barrikan. Herrian antolatuta eta sortu diren hamaika ekimen, irteera, talde, txapelketa... Txokoaren erra-ietan jaiotakoak dira, berbarako: Barrika

futbol eskola edota pala txapelketa. Luis Mari Gernika zenak solfeo edo musika eskolak ematen zituen Gure Izerdian; eta askok gogoan daukatenez, "txistulariak lan handia egin zuen Txokoaren eta herriaren alde". Horrez gainera, Gure Izerdiakoak Urdulizko Rabu Egunean, Berangoko Bakailao Egunean, Erromoko Tortilla txapelketan, Azkorriko Paella txapelketan... parte hartzen zuten eta askotan bururatu dituzte horietako txapelak. Abeslari finak eta zaleak ei dira eta Santa Ageda bezperan kantatzen eta eskean ibiltzen dira; "aurten ia berogailua jartzerik daukagun bildutakoa-akaz, elizako kanpaiak eta erlojua zaharber-ritzeko dirua ere horrela bildu genuen".

Gaur egun 150 bazkide baino gehiago dauzka Gure Izerdia Txokoak eta aurten 12 euroko kuota dauka, eta zelan ez, barri- kar guztiak dauzkate ateak zabalik. m

EUSKARA TALDEA ETA BERBALAGUNA PLENTZIAN

Euskara taldea eta berbalaguna sortzeko asmotan dabilza Plentzia aldean, herritarren artean euskara erabiltzeko, euskaldun zaharrak eta berriak batzeko... azken finean euskaraz egiteko eta hobetzeko. Lehenengo batzarra hilaren 20ean egingo dute Plentziako Goñi Portalen 20:00etan.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

BASTARTENA



URDULIZ

Tel: 940 761 123

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

Euskararen Eguna hilaren 22an

Hileko azken aurreko barikua aukeratu dute Gorlizen Euskararen Eguna ospatzeko, eta Iberrebarri plazan izango da topagunea. Goizean zehar umeentzako Euskaraz Olgetan programaren barruan haurrentzako parkea, eta lantegiak egongo dira eta 13:30ean Txan magoaren ikuskizunagaz gozatzeko aukera edukiko dute bertaraten direnek. Arratsaldean Aratz Dantza Taldeak euskal dantza lantegia emango du (17:30) eta gazteentzako break dance lantegia eta erakustaldia ere prestatu dituzte (18:30). Euskararen Egunari amaiera beroa emateko Betagarri taldearen kontzertua (23:30) dago iragarrita.



GORLIZ

Santiago jaiak hilaren 23tik 27ra



Ohiko moduan, txistulariek giroa alaituko dute

Gertu daude santiagoak, eta noiz helduko irrikan gorliztarrak. Hamaika zaporetako ekitaldiak aurreikusten dira hilaren 23tik 27ra bitartean, edakera berriak eta ohiko ahogozo ederrak. Horra baten batzuk.

Hilaren 23an 19:30ean irakurriko dute pregoia Eliz plazan eta ostean jaiei hasiera emango dien txupina botako dute. Ordu erdi geroago koadrilen jaitsera egongo da. Gauean musika izango gidari, Iberrebarri XI. Habanera eta Euskal Polifonia jaialdia, eta Eliz

plazan Drindots taldearen erromeria iragarri dira-eta. Domekan, bigantxen ostean hasiko da Gorlizko Badia Urazpiko arrantza txapelketa. 11:00etan zabalduko ditu ateak XIX. Eskulangintza azokak eta ordu erdi geroago ekingo diote lanari XXVII. Makailu txapelketan parte hartuko duten sukaldari prestuek. Arratsaldeko ekitaldien artean XX. Mozorro lehiaketa aipatzekoa da; eta gauean, berriz, Nazioarteko Dantza erakustaldia (Hungaria, Portugal eta Euskal Herria) eta Amaier taldeagaz gaudantzak egongo dira. Santiago eguneko goiza ezin pasa XVII. Nekazaritza azokara joan barik, ezta arratsaldeko Play Back txapelketako dantzari finen erakustaldia ikusi barik ere. Gauen Gauean karaoke eta disko gaua antolatu dute Eliz plazan, eta Imperial Nochistlan mariatxiek joko dute Iberrebarri. Martitzen arratsaldean Iturriaga, Irazu, Arzallus eta Paia bertsolarien saioagaz gozatzea izan liteke aukera ona, eta gauen All Jazz Era, Nun eta R-13 eskualdeko taldeen kontzertua ikustera joatea. Jaien azken txanparako paleta partidaren finalak eta Karrozen desfile-lehiaketa aurreikusiten dira. m

EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZAK

Euskara ikasteko ikastaroren bat egin dutenentzako (zentro homologatueta) dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du Gorlizko Udalak (irailaren 9ra arte). 1. urtekoek matrikularen %50erako laguntza jaso dezakete eta %75erako gainontzekoek.

“HONDARTZA DENONTZAT” EKIMENA MARTXAN DA

Bigarren urtez Gorlizko hondartzan mugitzeko urritasuna daukatenentzako baliabideak eta zerbitzuak ipiniko dituzte: begiraleak, uretako gurgil-aulkiak, anfibia makuluak, jarduerak... eta eurentzako aldagela ere paratuko dute. Irailera arte eskainiko da zerbitzua (11:30-18:30). “Hondartza denontzat” ekimen hau Bidaideak elkarteak eta Heldu Federazioak antolatzen dute, eta Gorliz, Getxo, Sukarrieta eta Zierbenako hondartzetan eskainiko da.

Uzt. 20 - Abuz. 10

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

ERROMO

► **Euskal musika tresna eta jantzien erakusketa eta Erromo/Pinuetako argazki zaharrak.** Erromoko kultur etxea. Abuztuak 2-6.

PLENTZIA

► **Yolanda Urkiagaren lanak.** Gofi Portal. Uztailearen 30era arte.

GORLIZ

► **Ertibil.** Eloisa Artazako Erakustaretoa. Uztailearen 22ra arte.
► **Jose Ignacio Olarrietaren eta Jon de la Huertaren lanak.** Eloisa Artazako Erakustaretoa. Hilak 23-30.
► **Paul Ygartuaren lanak.** Eloisa Artazako Erakustaretoa. Abuztuak 7-14.

URDULIZ

► **Zur eta ehoziri erakusketa.** Kultur Etxeko lantegietako lanak. Hilaren 29ra arte.

SOPELANA

► **Sopelako argazkiak.** Erakusketa gela. Abuztuaren 31ra arte.

LEMOIZ

► **Jokin Mitxelenaren marrazkiak.** Kultur Etxea. Abuztua.

ANTZERKIA

BERANGO

► **Herri Tropikala.** Patxin eta Potxin pailazoak. Santa Ana jaiak. Hilak 26, martitzena. 18:00.
► **Deabru Beltzak.** Santo Domingo jaiak. Abuztuak 4, eguena. 21:30.
► **ES3IN.** Natalia Monge. Santo Domingo jaiak. Abuztuak 5, barikua. 20:00.
► **Giramondo.** Haur antzerkia. Santo



► Dantza eta Musika

Folklore jaialdi bana Getxon eta Erandion

Getxok 3 egunez hartuko du jaialdia eta hurrengo dantza taldeak egongo dira: Bong San-eko Mozorro-Dantza Konpainia (Korea) hilaren 21ean, biharamunean Itxartu taldea (Getxo), eta uztailearen 23an Cumancoako Cruz Alejandro Quinal Dantza Nazionalistako Gazte Konpainia (Venezuela) ikusteko aukera egongo da. Dantza emanaldi horiek guztiak 22:00etan hasiko dira. Bestalde, Erandion hilaren 21ean egingo da Folklore jaialdia eta Trabudu (Astrabudua), Vezikhono (Hego Afrika) eta Cruz Alejandro Quinal (Venezuela) taldeek egingo dute dantzan (19:30).

• **Non:** Biotz Alai plaza (Algorta) eta Altzaga kirolegia (Erandio)

Domingo jaiak. Abuztuak 6, zapatua. 18:30.

► **All Jazz Era.** San Inazio jaiak. Kasinoa. Hilak 28, eguena. 23:00.

MUSIKA

GORLIZ

► **Betagarri.** Euskararen Eguna. Iberrebarri plaza. Hilak 22, barikua. 23:30.

GETXO

► **UKbilkada, Züproseries eta Desechos.** San Inazio jaiak. Txiki Otaegi plaza. Hilak 28, eguena. 23:00.

► **Bad Sound System, In I Sound System, MC Txango eta El Hechicero.** Reggae-Ragga jaialdia. San Inazio jaiak. Hilak 29, barikua. 21:00.

► **Dale ke te pego, Cuenta atras eta The Solano's.** San Inazio jaiak. Hilak 30, zapatua. 23:00.

► **Ene Bada.** Erromeria. San Inazio jaiak. Txiki Otaegi. Hilak 31, domeka. 20:00. Eta Erromo/Pinuetako jaiak:

Txosna gunea. Abuztuak 4, eguena. 22:00.

► **Gira Biraka.** Folk kontzertua. Erromo/Pinuetako jaiak. Cervantes plaza (Pinueta, Leioa). Abuztuak 3, eguaztena. 23:00.

► **VIII. Ska-reggae jaialdia.** Erromo/Pinuetako jaiak. Abuztuak 6, zapatua. 21:00. (ikus. 43).

ERANDIO

► **III. Erandio Musikalen.** Astrabudua. Hilak 6, 7 eta 8.

GORLIZ

► **XI. Itxas Kanta eta Euskal Polifonia jaialdia.** Santiago jaiak. Iberrebarri. Hilak 23, zapatua. 23:00.

► **Imperial de Nochistlan.** Mariatxiak. Santiago jaiak. Iberrebarri. Hilak 25, astelehena. 23:30.

► **All Jazz Era, Nun eta R-13.** Uribe Kostako taldeak. Santiago jaiak. Eliz plaza. Hilak 26, martitzena. 23:30.

BERANGO

► **Estropajo eta Su Ta Gar.** Santa Ana jaiak. Hilak 24, domeka. 23:00.
► **Kauta eta Ene Bada.** Santa Ana jaiak. Hilak 25, astelehena. 24:00.

BESTEAK

GETXO

► **Berto saioak.** Bertsolari entzutetsuak. San Inazio jaiak. Kasinoa. Hilak 28, 20:30. Hilak 29, 30 eta 31, 13:00. Berto-bazkaria: Pipers Irish Pub. Hilak 30.

► **Nekazaritza azoka.** Erromo/Pinuetako jaiak. Geltoki plaza. Abuztuak 7, domeka. 10:30.

GORLIZ

► **Nazioarteko Dantza jaialdia.** Hungaria, Portugal eta Euskal Herriko taldeak. Santiago jaiak. Iberrebarri. Hilak 24, domeka. 23:00.



20 ANIVERSARIO
URTEURREN



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Euskal selekzioak

Zazpigarren urtez jarraian antolatu dute ESAIT taldekoek Euskal Selekzioaren Eguna. Aurtan, egun osoko jai aldarrikatzaile hau uztailearen 3an ospatu zen Portu Zaharrean "Euskal Herriko Federazio Nazionalak sortu, kirolariok prest" lelopean. Makina bat lagun bildu zen Algortako bazter ederrera giro alaian, kirolean ere bai, herri honi dagokion onarpena aldarrikatzeko.

Argazkiak: **Jose Mari Martinez "Bubu"**



Denok jakingo duzue, honezkerok, Sopelan TAO ezartzeak hautsak harrotu dituela. Beharbada gauzek baretzera egin dute zuek hau irakurri orduko, baina lerrook idazteko momentuan behintzat, Udaletxearen eta herritar askoren arteko ika-mika bizi-bizi dago, zenbait istilu eta guzti. Batzuen eta besteen jarrerak ezin tinkoago emoten dute, gainera. Grabagailua eskuetan hartu eta Sopelara jo dugu, gatazka honen protagonista nagusien iritzi bila. Arazoaren muina azaltzea ez da gatxa: batzuentzat, TAO guztiz beharrezkoa da herrian; besteentzat, inondik inora ez. Zer gertatuko?

Urdinari gerra

TAO "auzia" Sopelan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Merkatarien kezka

Sopelako merkatarik askok ez dute TAO ondo hartu. Hala, 50 negozio inguruk osatzen duten Sopelako Ostalaritza, Zerbitzu eta Salerosle Elkarte bete-betean sartu da TAOren Aurkako Plataforman. "Arazoa guztion da, eta horregatik gagoz hor", dio Alberto Corral Elkarteko presidenteordeak. "Zelangura, geure aldarrikapenak geure aldetik egin gura ditugu, merkataritza herri baten zati garantzitsua delakoan". Merkatarik bildur dira bezero asko uzurtuko ete diren erosketak egiteko garaian, herritik kanpokoak batez ere. "Goiz da oraindik TAOren ondorioak ezagutzeko, baina askok esan digute ondo pentsatu beharko dutela etorri aurretik".



Ekainaren 15ean TAO indarrean jarri zen Sopelan. Ekainaren 22an, 1.000 lagun inguru batu ziren (*Correo* egunkariaren arabera) herriko Udaletxe aurrean eta neurriaren aurkako kontzentrazio zaratsua egin zuten. Mobilizazio gehiago egin dira haren ostean, eta istiluren bat edo beste ere egon da (arrautza jaurtiketa, Udaletxe barruko altzariak hondatu...); bai Udala, bai mobilizazioetarako deia zabaldu zutenak bat etorri dira gertakariok gaitzesten. Biek hala biek adierazi dute istiluon eragileek ez daukatela zer ikusirik kontzentrazioen antolatzaileakaz. Eta hori da, hain zuzen, Udala eta TAOren kontrakoak ados dagoen gauza bakarra.

"Sopelan ez dago aparkatzeko inolako arazorik", diosku TAOren Aurkako Plataformako Ixaso Zaldibarrek. "Ni egunero

«TAOren aurkako ustez, Sopelan ez dago aparkatzeko inolako arazorik»

joaten naiz hirigunera -Zaldibar Sopelmarren bizi da-, eta ez badut autoa gura dudana kalean uzten, albokoan uzten dut". Orduan, zergatik ezarri da TAO? Haren aurkakoeke diote dirua irabazteko bide bat izan daitekeela, beste barik, eta baztertu egiten dituzte Udalak emondako argudioak.

Argudio horietan nagusia EHUK egindako txosten bat da. "Txostenaren arabera -azaldu digu Ricardo Ibarrek, Sopelako gobernu taldeko bozeroaleak-, herriko aparkalekuetan %85eko saturazioa dago. Hau da, lekuen portzentaje hori beti dago beteta. Eta horrek, txosten-egileen berbetan, herria gainezka egiteko zorian dagoela esan gura du. Derrigorrez hartu behar genuen neurriren bat".

Moldaketa sakonak aste bitan

Aldaketa garrantzitsu batzuk egon dira TAO indarrean daroan denboran. Berbarako, hasieran TAO dagoen kaleetan bizi direnek baino ezin zezaketen eskuratu -urtean 30 euroren truke- aparkatzeko eskubidea emoten duen egoiliar-txartela. Neurria ezarri eta hamabost egunera, es-

kubide hori Sopelako herritar guztiek edukiko zutela iragarri zuen Udalak. "Zer aldatzen da orduan?", itauntzen du Ixaso Zaldibarrek. "Denak jarraituko du berdin, baina herritar bakoitzari 30 euro kobratuz urtero". Udalak hala denik ukatzen du: "TAO guneetan bizi ez direnek mugatuta edukiko dute aparkatzeko denbora. Gero,



TAOren aurkako sopeloztar bi udaletxearen aurrean jaien hasiera egunean

euren guneetan utzi beharko dute autoa". Bide batez, Ibarrek dio aldatetok ez direla protesta-ekintzen ondorioa, "herriko taldeakaz egin ditugun elkarrizketen eta jaso ditugun ehunka ekarpenena baizik".

Udalak erreakzioaren bat espero zuen, baina beharbada ez hainbestekoa. Mobilizazio guztiak nahiko jendetsuak suertatu

gehien, baina guk ez dugu etsiko".

Bestalde, TAOren Aurkako Plataformak salatu egin du Udaletxea herritarrak banatu gura dituela, konponbide desberdinak opetziz batzuei eta besteei. "Arazoa bakarra da: TAO ipini dutela TAOrik behar ez duen herri batean", aldarrikatzen dute. Udaletxea ez dator bat: "Sopel-

«EHUKo txosten batek dio Sopelako aparkalekuak gainezka egitear dagozela»

dira hau idazteko momentura arte, eta 3.200 sinadura batu dira TAO kendu dezatela eskatuz. "Hala ere, seguru gagoz hilabete batzuk barru onin ezetz dioten askok egokitzen joko dutela neurria", dio Ricardo Ibarrek. Plataformakoak ez dagoz amore emoteko prest, ordea: "Jakin badakigu gatazka luze batean Udalak daukala inabazteko aukera

marrekoen arazoa edo harakinarena desberdinak dira, eta modu desberdinean egin behar zaie aurre". TAOren aurkakoeke, berriaz, gogorarazi egiten dute arazo desberdinak izan arren, urtenbidea bakarra dela. Udaletxeak inola ere onartzen ez duen urtenbidea, jakina. Zelan askatuko da korapiloa? m

Getxoko eredia

Uribe Kostan, Getxo da TAO daukan beste udalerria. 1996an ezarri zuten, eta ez zen, inondik inora, Sopelan bezainbeste zalaparta sortu. Udaletxeak gogoratu digunez, "protestak egon ziren merkatari elkartearen aldizkaritxoan, garai hartan haien presidentea zena guztiz alde zegoen arren. Baina gutxi iraun zuten. Edozelan ere, zerikusirik ez orain Sopelan jazotzen denagaz". Bestalde, eta ulertzekoa denez, auto gidariengan TAOreko nahasmena egon zen hasieran, "baina laster ohitu ziren denak".

«Hainbat eredu begiratzen ibili ostean, Getxok Baionakoa aukeratu zuen akabuan»

TAO beste neurri batzuk batera ezarri zen Getxon. Hainbat kale oinezkoentzako bakarrik uztea izan zen horietako bat, eta hark bai eragin zuen jende ugari asaldatzea, "oso kontu berria zelako artean". Hala ere, Udaletxeak dio orduan kontra agertu zirenak kale gehiago oinezkoentzat uztea eskatzen dabilzala.

«Sistema berritzailea, bere garaian»

Enpresa pribatu batek kudeatzen du TAO Getxon. Datorren urtean amaituko zaie kontratua, eta orduan ikusiko da zer gertatzen den, baina Udaleko iturriek sistemak ondo funtzionatzen duela azpimarratu dute. "Ezari genuen sistema berritzailea izan zen bere garaian, eta geroztik hiri askok erabili dute". Antza, Getxoko hirigintza arduradunak hainbat lekutan ibili ziren eredu bila, eta azkenean Baionakoa aukeratu zuten.



Antzarak

David Herranz

Eskualdeko jai guztiak hartuz,
Portu Zaharrea egiten den
antzaren jolasa, seguru asko,
ekitaldirik ikusgarriena da.
Irudi ederrak egoten dira han,
orrialdeotara ekarri dugun
hau kasu.



PORTU ZAHARRA, 1993

[berbetan]

Pello Sarasola hermaniarra 1991tik bizi da Uribe Kostan; Sopelanan lehenengo, eta Urdulizen “orain dela hiruzpalau urte”. Apirilaren 30era arte, ETBko programazio-arduraduna zen, eta maiatzaren 1etik lan bera egiten du Antena 3en. Madrilen, beraz. Han emoten ditu lan egunak, eta hemen aste-akabuak. Ospa egiteko erabakia latza izan dela diosku: “Ez zen, egia esan, jasotzen nuen lehenengo eskaintza, baina orain arte beti ezetz esan dut, ez neukalako inolako gogorik Euskal Herritik kanpora joateko”. Azkenik, ordea, ETB uztea erabaki du, bere zikloa agortuta zegoelakoan. Izan ere, programazio-arduraduna futbol entrenatzaileen parekoa ei da; asko “erretzen” duen lanpostua da, eta sarritan aldatzen da. Baina Sarasolak marka guztiak hautsi ditu: hamar urte egin ditu ETBn. Orain, berari dagokio Antena 3 pizten dugunean pantailan zer agertuko zaigun erabakitzea.

Pello Sarasola

Telebistako “sukaldetik”

Testua: **Unai Brea**

—Telecincok Mikel Lejartza fitxatu zue-
nean hasi zinen programazio-arduradun
modura ETBn. Orain, Antena 3ek fitxa-
tu zaitu. ETB harrobi ona da, ala?

—ETBk bi telebista-kate dauzka. Bata
euskaraz da, eta zaila da jendeak hori
behar bezala baloratzea Euskal Herritik
kanpo. Baina bestea erdaraz izanik, oso
ikusia da kanpoan, arlo profesionalean
esan nahi dut. Gainera, nire ustez ETB-
2k, betidanik eta batik bat azken urte
hauetan, nazioarteko joeren barruan dau-
den saioak egin ditu entretenigarri arloan,
eta horrek esan nahi du ETBko jendea
kanpotik nahiko begiratzen gaituztela. Ez
bakarrik “sukaldean” gabiltzanok, baita
pantailan azaltzen direnak ere, eta hor
daude azken urte hauetan kanpora joan
diren hainbat aurkezle.

—Orduan, estatu mailako telebista han-
diek asko jotzen dute autonomietakoeta-
ra? Buenafuente adibide ederra dugu...

—Hala da. Buenafuente, Estatuan, ezeza-

guna zen guztiz, eta Katalunian berriz iza-
rra. Zer gertatzen da telebista autonomi-
koetan? Diru gutxiago dagoenez, ausardia
handiagoz jokatu behar da; telebista han-
dienak, diru gehiago eduki arren, askoz
gordetzailegoak dira, jaitsieren eta igoeren
ondorioak askoz nabarmenagoak direlako.
Beraz, enpresa txikiak ausartagoak dira.
Eta ausardiaren ausardiaz hainbat hanka-
sartze egiten dira, baina ondo ateratzen

“Telebista autonomikoek, diru gutxiago dutenez, ausardia handiagoz jokatzen dute”

denean, bete-betean asmatzen da askotan.
Horrek ospea ematen du, agian merezi
gabekoa. Gaur egun, estatu mailan, entre-
tenigarri arloan dagoen fenomenorik ikus-
garriena *Vaya semana* da. *Vaya semanita*
sekulako fama eman die bai egileei, bai
ematen duen telebistari, baina *Vaya sema-
nita* sortu ahal izateko ETBk hainbat
porrot eta hanka-sartze egin izan ditu az-

ken urte hauetan. Arrakasta lortutakoan
ahazten diren porrotak. Oso arraroa da
halakorik gertatzea telebista handietan, ez
dagoelako behar beste pazientzia.

—Beraz, telebista handiek apustu segu-
ruak egiten dituzte...

—Bai. Eta berdin da komunikatzaileen
arloan zein teknikarienean, nire kasuan
bezala. Nire lanak, programazio-ardura-
dun lanak, alde txar bat dauka, baita on

bat ere. Txarra da oso lan espezializatua
delako, eta ez dakigulako beste ezer egiten.
Eta ona da oso jende gutxi gabiltzalako
horretan, eta telebista handiek eskarmen-
tu handia daukaten pertsonengana jotzen
dute. Askorik ez dagoenez...

—Presioa handiagoa izango duzu Antena
3en, ezta? Eta telebista-eredua ere, guztiz
desberdina, publiko batetik pribatu bate-





PAELLA EGUNA AZKORRIN, 1967

Getxoko egun handia

Ikusiko zenutenez, aldizkariaren zenbaki honetan tarte handia eskaintzen ari gatzaizkio Getxoko Itxas Argiak antolatzen duen Paella Egunari. Izan ere, 50 urte betetzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Ezinezkoa da Paella Egunak urte hauetan guztietan eman duena irudietan laburtzea. Guk urte desberdinetako argazki bakar batzuk aukeratu eta zuenganatu nahi izan ditugu urteurren berezi hau ospatzeko.

Argazkiak: **Itxas Argia**











gaizka escudero / basalbokoia

Txipiroiak

kipula eta onddo beltzekin

Abrako txipiroia estimatua bezain bakana da. Hala ere, lortzek eskatzen duen ahaleginak merezi duelakoan nago. Hasteko, txipiroi preziatu hauek lortu behar dira, eta gero ondo garbitu. Irinetik pasatu ostean oliba oliotan salteatu. Nik berakatzarekin batera egiten ditut, hasieratik zapore hori har dezaten. Txipiroi guztiak salteatu ondorengo olio berean, julianan zatitutako kipula egiten jarri su ahulean. Eginda dagoenean, aurretik salteatutako txipiroiak eta koñiak txorrotada bat (sukaldariaren gustura) eta arrain salda apur bat gehitu. Onddo beltzak aparte salteatu behar dira, eta eginda daudenean bestearekin nahastu. Ez zaizue damutuko! ^m

osagaiak (bi lagunentzat)

800 gramo Abrako txipiroi • 400 gramo onddo beltz • hiru kipula koñaka • oliba olio • irina • gatz • arrain salda



itsaso arana / jolastokikoa

Tenerifeko

ardaoak

Gaur egun Estatuan badira 54 jatorri izendapen (erderaz D.O.). Ardao leku gehiagotan egiten da baina ez dute jatorri izendapenik lortu. Oraingoan Abona D.O. ezezaguna ikusiko dugu. Tenerife uharterko hegoaldean dago eta Adeje, Arona, Villaflo, San Miguel Arico, Fasnía eta San Miguel de Abona hartzen ditu izendapen honek. Baltzak eta gorriak ere egiten diren arren, ezagunenak ardao zuriak dira. Mahats motei dagokienez, zurien artean *listan zuria*, *verdello*, *malvasia*, *sabro* eta *bermejuelo* dira landatuenak; baltzen artean, berriz, *listan beltza* eta *negramoll*.

Ardao zuriek jantzi distiratsua izaten dute; arinak, sikuak, alaiak eta dotoreak izaten dira. ^m

Bodegak eta ardaoak:

- *Coop. Cumbres de Abona.*
—Flor de Chasna, zuria
—Viña Peraza Ecológico, zuria
- *La Ortigosa SL.*
—Leña Blanca, zuria



Berna Etxea jatetxea

Etxean legez prezio onean jan



Iñigo eta Edu anaiak jatetxeko zerbitzariak ditugu eta euren ama Josefi, sukaldaria

Villamonte auzoan (San Nikolas ikastolatik oso hurbil) dagoen jatetxe soil honek beste ugazabariak ezagutu badu ere, azken hamar urteotan Josefa Hernandez getxotarra dugu bertako arduraduna. Josefi Berna Etxeako sukaldarietako bat ere bada. Bertan, besteak beste, familia osoak egiten du behar: senarra, hiru seme-alabak (Iñigo, Edu eta Arama) eta koinatua.

Etxeko janaria prestatzen dute, aukera zabalekoa. Eguneko menuak 7,50 euro balio du lanegunetan; zapatuetan, berriz, 8; eta domeketan 10. Karta badaukate (23 euroren truke gutxi gorabehera), baita koardilenzako menu bereziak ere. Azken horiek ez daukate prezio finkorik, *“aldeek gastatu gura dutenaren arabera dago”*, dios-

ku Josefik. Afariak ere ematen dituzte, baina normalean kartako menua izaten da. *“Asko xahutu gura duenak badauka aukera, baita gutxi gastatu gura duenak ere. Patrika guztietara helitzen saiatzen gara”*.

Behargin ugari joaten dira Berna Etxeara bazkaltzera: *“Egunean, batez beste, 90-100 bazkari inguru ematen ditugu”*. Jatetxea eguerdiko ordubatean irekitzen dute egunero, eta zarratzeko ordutegi iraunkorrik ez daukate. Abuztuan, Aste Santuan, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egoten da. ^m

BERNA ETXEA JATETXEA
Areneazpi, 3 - Algorta
T.: 94 430 48 29

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

VIEJO



kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia oro-korra
- Ortodontzia
- Periodontzia



Bidebarri 27, behea eskuinta
ALGORTA
94 94 430 76 96

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Eguzkiaren beroak epeldu dizu izaera, bazen garaia! Orain arte haserre antzean ibili zara, erantzun motzak ematen, denei aurpegi txarrak ipintzen, lar pipertuta... La Eguzkiak eman diezaiokeen bultzada gaur daukazun aldarre hobe horri.</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Gastu asko eduki dituzula eta ez zoazela oportetan? Ez da jai hori sinestuko duenik! Azkenean ziur bidaia txoren bat egingo duzula, ez dakit non bizi den laguna bisitatzera, bidaia merke-merke bat proposatu dizutela-eta...</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Zer ondo oportetan! Baina, irailan zer? Lasai, Adarra, lehenengo lehenengokoa: oportez goxatu, eta gero gerokoak. Gaurdanik irailari begira hasten bazara, ezingo duzu orainaz gozatu. Irailan larritu behar baduzu, larrituko zara.</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Egunak 24 ordu, eta 24 orduak bete artean ez da hurrengo eguna helduko. Sasoiari sasoiokoa. Goiz ala berandu biziko duzu horrenbeste desio duzun hori, baina momentuz, lasai itxaron, besterik ezin duzu egin.</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Urtean zehar irabazitako sos apurrak xahutzeko garaia da. Aurreztu behar duzula? Urrezko hilobia erosteko aurreztea baino hobe zenuke bizi bitartean daukazunagaz gozatzea. Herio bila datorkigunean berdin emango digu hil-kutxa pinuzkoa izan ala ez.</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Egindako lanak eta ahaleginak merezi izan du, ez zalantzarik eduki. Agian gauzak ez dira zuk gura legez irten, baina ahalegindu ez zarenik ez du inork esan. Orain indarrak berreskuratzeko garaia da.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Parranda egiteko eta goizeko ordu txikietan etxera heltzeko gogotsu zabilzta. Baina kontuan hartu sanjuanetatik hona gauak luzeagoak direla eta zu aspaldi ez zarela erondan ibili, eronkari eusteko gai izango al zara?</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Gaua heldu orduko kainabera arrantzarako prest edukiko duzula esan duzu aho betez. Baina ez al dakizu ba aurtan antxoarik ez dagoela? Zuk harrapa dezakezun bakarra lebatza da, hori bai kriston lebatza!</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Gizakia ei da harri berean birritan tronpatzen den bakarra. Zuk hirugarrean ere estropozu. Zenbatetan egin beharko duzu laprast? Batzuek lehenengoan ikasten dute, beste batzuek... Hobe duzu berandu baino lehen lezioa ondo ikasi.</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Sanferminak, saninazioak, santiagoak, santanak... Santu guztien egunak ospatu behar dituzu ala? Jaiak jai pozik zabilzta baina gorputzak ere lasai egoteko gogoak dauzka! Astegunetan gixtienez trankil ibili zaitze!</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Uda itzalaren bila ematen dozu, negua eguzki-izpien zain, udagoiena arbolak noiz berdetu itxedoten eta udaberria baso marroiak irudikatzen. Kontxo! Sasoiari sasoiokoa! Hori ulertuz gero ez zinakeke beti hain pipertuta ibiliko!</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Arrantzaleek itsasoa maitatzen duten legez bildurra ere badiote, errespetua. Zuri ere berdin gertatzen zaizu, maite duzu baina haren balizko ezetzak ikaritzen zaitu. Baina arrantzaleak ez du itsasora berriro ere iriteko dudarik edukitzen.</p>

mungia
OKINDEgia



Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa


LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Balakatuak, ferekatuak. 2. Larruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

1. Langile klasea. 2. Martxan jarriak. 3. Zirt edo ..., erabakil ikusmenaren organoa. 4. Asia Txikiko antzinatoko hiria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo. 6. Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa. 7. Bos-tehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzo. Amerikako estatua. Iodoa.



Soluzioak



asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Dantza du ogibide.
- Madril, Bordele eta Erroma artean bizi da.
- Telebistako aurkezle ezagun batekin ezkontuta dago.

> Aurrekoaren erantzuna: Iñigo Landaluze
> Irabazlea: **Javier Perez (Leioa)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Zuri Haitz
Jatetxe begetarianoa



Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



MAITE BILBACK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Paella leihaketaren 50. urteurrena

Azkorriko landetan 1960ko uztailaren 25ean, Santiago egunean hartutako argazkia duzue goikoa. Bosgarren Paella txapelketa zen eta antolatzailea Itxas Argia elkarte. Argazki honetan xehetasun batzuk azpimarratu behar dira: gizon bi txapela buruan, ardao-txanbila, ez toldorik ezta txosnarik ere, platerak gainean ipintzeko mahai-oihala eta kitto; ez dira hainbeste urte pasatu, baina argazki hau errepikatzea ezinezkoa edo ia ezinezkoa dirudi.

Historia apur bat eginez, gogoratu behar da Aixerrota (1968tik aurrera) ez dela beti izan Paella txapelketaren kokalekua. Goienetxe baserriaren atzealdea (1956-57) eta Azkorri (1958-67) izan ziren lehenengoak. Damian Ayo, Feliz Yurrebaso eta Antonio Bilbao *Txirri* (Iruena elkarte) izan ziren sortzaileak eta antolatzaileak lehenengo bi urteetan. Baina parte hartzaileen kopurua zela eta, antolakuntza gero eta zailagoa zen; horregatik Itxas Argia elkarte horretaz arduratzen hasi zen eta horrela gaur egun arte. Aurtengoak, beraz, Nazioarteko Paella lehiaketaren urrezko ezteiak ditugu. Honaino heltzeko lan egin duzuen guztiguztioi, eskerrik beroenak. Eta Itxas Argiari, bihotz-bihotzez, zorionak! m

Ezkerretik eskuinera: Enrique Bilbao (GB), Isidro Basarte (GB), Peru Bilbao, Juan Jose Bilbao (GB), Itziar Bilbao, Paca Corral (GB), Natividad Pomposo (GB), Garcia jauna (GB).

cianoplan **Reprografia**
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- ermarkaketak



[aitormenak]

NAROA AGIRRE > atleta

“Gurasoak eredutzat dauzkat”

Testua: **Jon Urresti**



Defini ezazu zeure burua.

Aldamenekok hobeto egingo lukete hori norberak baino! Nahiko burugorra naiz eta jenio bizia ere badaukat, baina ez zait gehiegi kostatzen jendearekin harremanak izatea.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?

Edozer gauza polit idazteko gai banintz... Beste batek idatzitakoa, berriz, Ken Folleten *Los Pilares de la Tierra* liburua idatziko nuke.

Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Oraindik egin ez den pelikula baten protagonista izango nintzateke. Barre egitekoa, negar egitekoa, beldurrezkoa... Berdin zait.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Gurasoak eredutzat dauzkat.

Zure jakirik gogokoena.

Izugarri gozaten dut jaten. Ez dakit... Makarroiak eta txokolatea.

Aitor dezakezun bizio bat.

Gurutzegramak egitea afaltzen nagoen bitartean.

Oporretara joateko lekurik aproposena.

Toki berriak ezagutzea gogoko dut. Azkenengoa Asturias izan da.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Gezurretan ibiltzea.

Ezin zaitezke bizi... Senarra gabe.

Zer gordetzen duzu sakeletan? Kleenexak beti.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Gerrak debekatuta daudela eta benetan amaitzen direla.

Ohitura txarren bat...

Dilistak egurrezko koilararekin jatea gustatzen zait.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?

Proba batera berandu iristea. Pentsatzen dut hori amesten dudala normalean oso justu ibiltzen naizelako. Ez dut berandu esango...

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Nire azkeneko txapelketan Madrilen, orain dela pare bat aste.

Ezintasunagatik izan zen: min hartu nuen, eta ezin izan nuen nik nahi nuena saltatu. ^m

LABURREAN — Atleta gorpuzkera dauka eta aktore itxura. Pertikak dira bere lanabesak, eta ez daki zenbat dauzkan. Naroa Agirre (Donostia, 1979) seigarren geratu zen Atenasko Olinpiar Jokoetan, eta gaur egungo Espainiako txapeliduna dugu pista estalian. Bere hurrengo erronkak abuztu hasieran izango den Helsinkiko Munduko Txapelketa -“iristea espero dut”- eta 2008ko Pekingo Olinpiadak dira. Bartzelonan Ingurumen Zientziak ikasi zituen atleta honek 4,35 metroko eta 4,47 metroko markak lortu ditu pista estalian eta atari zabalean hurrenez hurren. Baina Naroa luzera-jauzia egiten hasi zen eta Jon Karla Lizeaga entrenatzailea ezagutu zuenean (gaur egun bere senarra ere bada), pertikara egin zuen jauzia. Kirolaz gain, aktore dabil *Goenkale* telesailean: “Halabeharrez sortu zen. Noizean behin pertsonaia ezagunak gonbidatzen dituzte. Behin ni atera nintzen, gustatu zitzaion, eta jarraitzea eskaini zidaten”, dio Nagorek. “Ondo pasatzen dut Goenkale, eta nire pertsonaia desagertu arte edo ‘hiltzen’ duten arte jarraituko dut”. Alabaina, ez du inondik ere bere burua aktore ikusten: “Nire lana atletismoa da”.

Hondartzan Irakurtzeko Txokoak

ABUZTUA: 5, 12, 19 eta 26an
IRAILA: 2an
ARRIGUNAGA
hondartzan

ABUZTUA: 6, 13, 20 eta 27an
IRAILA: 3an
EREAGA
hondartzan

05
Abuztua
eta Iraila

Getxo
Bazarreko
bbk
portals